

Bertsolariak Aitzan eta Igeldon

Sustrai Colina eta Andoni Egaña bertsolariak kantuan ariko dira ostiralean, uztailak 2, Altzako plazan, 13:00etan. Herri bazkarian ere ariko dira bertsotan, 14:00etan, Altzatarra elkartearen. Arratsaldean —19:45ean—, berriro, beste bertso saio bat eskainiko dute plazan. Igeldon ere bertsoekin gozatzeko aukera izango da asteburu honean. Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Jon Maia bertsotan ariko dira igandean, uztailak 4, Igeldoko plazan, 20:00etan.

Esqalera Poesika Ipotx tabernan

Esqalera Poesika taldeak musika eta olerkia uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du ostiralean, uztailak 2, Altzako Ipotx tabernan, 21:00etan. Luis Zabala olerkaria eskailera batera igo eta bere poemak errezitatuko ditu. 'Luisito' ez da bakarrik ariko, ordea. Taldeko beste kideek musika jarriko baitiete poemari.

El Canto del Loco Belodromoan

El Canto del Loco musika talde madrildarrak kontzertua eskainiko du larunbatean, uztailak 3, Belodromoan, 22:00etan. "Estados de ánimo" disko arrakastatsua-ren abestiak aurkeztuko dituzte, bereziki Pop musika arin eta atseginarekin maitaleak asetzeko moduko kontzertua izango da.



Asteazkena 7

Antzerkia

- Animalario taldearen "La boda de Alejandro y Ana" lana. Kursaalako Ganberan, 20:00etan.

Zinema

- Tim Burton zinemagilearen "Big Fish" filma. Altzako Plaza Gorrian, 22:30ean.

Osteguna 8

Antzerkia

- Animalario taldearen "La boda de Alejandro y Ana" lana. Kursaalako Ganberan, 20:00etan.

Zinema

- P.J. Hogan zinemagilearen "Peter Pan. La gran aventura" filma. Altzako Plaza Gorrian, 22:30ean.

Ostirala 9

Zinema

- Gore Verbinski zinemagilearen "Piratas del Caribe. La maldición de la Perla Negra" filma. Altzako Plaza Gorrian, 22:30ean.

Larunbata 10

Zinema

- Peter Weir zinemagilearen "Master and Commander. Al otro lado del mundo" filma. Altzako Plaza Gorrian, 22:30ean.

Abenturazko filmak Aitzan

Arrakasta handiko abenturazko filmak ikusgai izango dira Altzako Plaza Gorrian, uztailaren 7tik 10era bitartean, 22:30ean. Uztailaren 7an, "Big Fish" filma eskainiko dute; uztailaren 8an, "Peter Pan. La gran aventura"; uztailaren 9an, "Piratas del Caribe. La maldición de la Perla Negra" eta uztailaren 10ean, azkenik, "Master and Commander". Udaran, kalea zinemaz gozatzeko toki ezin hobea da, benetan.

